Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2017ko apirilaren 28a, ostirala — 81 — Viernes, a 28 de abril de 2017

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## BEASAINGO UDALA

*Iragarkia*

Apirilaren 2ko Erregimen Lokaleko Oinarrien 7/1985 Lege Erregulatzaileko 70.2 artikuluan, azaroaren 28ko 2568/1986 Erret Dekretu bidez onetsitako Entitate Lokalen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduko 196.2 artikuluan eta 1955eko ekainaren 17ko Dekretu bidez onetsitako Korporazio Lokalen Zerbitzu Erregelamenduko 7.2 artikuluaren arabera, «Beasaingo udalerrian baratzak esleitzeko eta kudeatzeko araudia» testu osoa argitaratzen da. 2017ko otsailaren 23an Udalbatza Osoak hasierako onespena eman zien aipatutako oinarriei eta jendaurrean jarri ondoren 30 laneguneko epean, 2017ko martxoaren 7an Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN iragarkia argitaratuta, ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu. Beraz, erabakia behin betikoa bihurtu da.

Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka, Administrazioaren aurkako helegitea jar daiteke Gipuzkoako Administrazioaren aurkako Auzi gaien Epaitegiaren aurrean, jakinarazpen hau jasotako egunaren biharamunetik hasita zenbatutako bi hilabeteko epearen barruan.

Hori guztia, administrazio publikoetako prozedura administratibo arrunta arautzen duen, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan eta kidekoetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Beasain, 2017ko apirilaren 24a.—Aitor Aldasoro Iturbe, alkatea. (2817)

*Beasaingo udalerrian baratzeak esleitzeko eta kudeatzeko araudia.*

Proiektatutako baratzeak herritarren eskura jarritako eskaintza pedagogiko eta ekologiko gisa ezarri dira, herritar arruntei eremu publiko bat erabiltzeko aukera eman edo erraztuko diena, lurra landu eta lan horren emaitza gisa kontsumo pertsonalerako fruitu batzuk erdietsi ahal izateko. Baratze hauek aisialdiko eta ongizateko alternatiba modura proiektatu dira, eta baztertutako gizarte-sektoreak sozialki nahiz pertsonalki integratzeko aukera emango dute. Oro har, herritar guztiei zabalik dagoen jarduera bat da, baina esleitzeko orduan, gizartean premia handienean aurkitzen diren taldeei emango zaie lehentasuna.Baserriaren eta herriaren arteko lotura bat da, naturarekiko errespetua zabaltzeko, naturaren aberastasunak duen garrantzia balioesteko eta bizi garen lurralde honetan gure kulturak betidanik izan dituen erroak berreskuratzeko apustu bat.

### I. KAPITULUA

### PRINTZIPIO OROKORRAK

1. *Helburua.*

Araudi honen helburua da Beasaingo Baratze Parkeko lursailen erabilera, gozamena eta aprobetxamendua arautzeko beharrezkoak diren baldintzak ezartzea eta, halaber, baratze horien esleipen-prozedura, baratzetako laborantza-jarduera eta erabiltzaileen erantzukizuna arautzea.

## AYUNTAMIENTO DE BEASAIN

*Anuncio*

De conformidad con lo establecido en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, el artículo 196.2 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales aprobado por Real Decreto 2586/1986, de 28 de noviembre, y el artículo 7.2 del Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales aprobado por Decreto de 17 de junio de 1955, se publica en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa el texto íntegro de la «Normativa para la adjudicación y gestión de huertas en el municipio de Beasain». La normativa fue aprobada inicialmente en la sesión plenaria del 23 de febrero de 2017 y sometidas a información pública mediante anuncio publicado en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa del 7 de marzo de 2017, sin que en el plazo de 30 días establecido para presentar reclamaciones se haya presentado ninguna. Por lo tanto, el acuerdo ha pasado a ser definitivo.

Contra ese acuerdo, que es definitiva en vía administrativa, cabe interponer recurso contencioso administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo de Gipuzkoa en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al del recibo de la presente notificación.

Todo ello, conforme a lo establecido en los arts. 123 y 124 y concordantes de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del procedimiento administrativo común de las administraciones públicas.

Beasain, a 24 de abril de 2017.—El alcalde, Aitor Aldasoro Iturbe. (2817)

*Normativa para la adjudicación y gestión de las huertas en el municipio de Beasain.*

Las huerta proyectadas se establecen como una oferta pedagógica y ecológica a disposición de los ciudadanos, que acerque o permita al ciudadano de a pie disponer de un espacio público donde cultivar la tierra y obtener los frutos de la misma para consumo personal. Las huertas se proyectan como una alternativa de ocio y de bienestar que permita la integración social como personal de sectores sociales excluidos. Se trata de una actividad abierta al ciudadano en general pero que prioriza la concesión a los grupos más necesitados de la sociedad. Se trata de un nexo de unión del caserío y el pueblo, una apuesta por inculcar el respeto por la naturaleza, valorar la grandeza de la riqueza natural, devolver de alguna manera el arraigo de nuestra cultura a la tierra que nos alberga.

### CAPÍTULO I

### PRINCIPIOS GENERALES

1. *Objetivo.*

La presente normativa tiene por objeto la regulación de las condiciones necesarias destinadas a reglamentar el uso, disfrute y aprovechamiento de las parcelas en Beasaingo Baratze Parkea, así como regular el procedimiento para la adjudicación de las mismas, la regulación de la actividad de cultivo de los huertos y la responsabilidad de los usuarios.

EK\CV GAO-I-2017-02817

Herritarren artean ingurumen-heziketarako eta partaidetzarako balio batzuk sustatzea, eta aldi berean, bizimodu aktibo bat erraztea.

Gizarte izaerako proiektu iraunkor baten oinarriak finkatzea eta hori garatu dadila sustatzea, eta horrekin batera, herritarren arteko harremanak sustatuko dituen esparru egoki bat sortzea.

Premian edo larritasunezko egoeran aurkitzen diren kolektibo edo pertsonei beren kontsumo pertsonalerako erabiliko dituzten elikagaien laborantzarako eremu arautu bat eskaintzea.

Baratze Parkea-ren erabiltzaileen arteko lankidetza aukera eskaintzea.

Tokian tokiko laborantza modu gisa nekazaritza ekologikoaren irizpideak eta jarraibideak zabaltzea eta praktikan jartzea.

Baratze-espezie tradizional autoktonoak ekoitzi eta berreskuratu daitezela erraztea.

Kontsumo-kultura iraunkorrago bat sustatzea eta horretarako beharrezkoak diren baliabideak herritarren esku jartzea.

Nekazaritza ekologikoari buruz, konpostaren ekoizpenari buruz, euri-uraren aprobetxamendu-sistemei buruz eta abarri buruz beharrezkoa den heziketa ahalbidetzea.

Ikastetxeei alternatiba bat eskaintzea ingurumen-heziketarekin loturiko balioak gazteen artean zabaltzeko, ekimen honen inguruko jarduerak eginez.

2. *Aplikazio-eremua.*

Araudi hau Beasaingo Udalak alokairuan dituen eta behinbehinekoz nekazaritza-erabilera izendatzen zaien lursail guztietan aplikatuko da, baita horiei atxikitako zuzkidura osagarrietan ere, guztiak ere udalerriko baratze-gunearen barruan bilduak.

3. *Definizioak.*

a) Erabiltzailea: Lizentziaren titularra edo esleipenduna: Lagatzen den ondasuna erabiltzeko edo aprobetxatzeko eskubidea jasotzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa. Hemen interesa duten ondorioetarako, baratzearen gaineko lagapenaren onuraduna.

b) Fruituak: Baratzearen erabileratik lortzen diren etekinak, hau da, ereitetik eta lur-lanketaren ondorioz lortutako produktuak, nola baitira barazkiak, frutak, lekariak eta abar.

c) Elementu komunak: Baratzetako lurzatiaren elementu propioak edo ezarritakoak dira eta erabiltzaile batzuk edo guztiek erabiltzen dituztenak, hala nola, pasabideak, itxiturak, hodiak, deposituak, mugatzeko jarritako pibotak eta abar.Era berean, elementu komuntzat jotzen dira laborantzako lanabesak eta erabiltzaileen esku jartzen diren gainerako tresnak.

d) Erantzukizuna: Baratzeen erabiltzaile bakoitzak bere gain hartua duen erantzukizuna, nork berea eta erabiltzen duen lursail zatiaren araberakoa.

e) Baratze ekologikoa: Bakoitzak duen lursail zatia, eta zati horren gainean eratzen da erabili, gozatu eta aprobetxatzeko erabiltzaile bakoitzak duen eskubidea; aisialdirako baratze ekologiko ere deitzen zaie.

f) Lurzatia: Baratzeak kokatuta dauden lursaila.

g) Familia-unitatea. Etxebizitza berean izatez eta zuzenbidez elkarrekin bizi diren pertsonak, alegia, bi ezkontideak edo izatezko bikotekideak (edo horietako bat, alargunduta, bananduta edo dibortziatuta egonez gero) eta adingabeko seme-alabak, etxebizitza berean bizi badira.

h) Interes-taldeak:

Fomentar una serie de valores de educación y participación ambiental entre la ciudadanía, favoreciendo al mismo tiempo un estilo de vida activo.

Sentar las bases e impulsar el desarrollo de un proyecto sostenible y de carácter social, creando al mismo tiempo un marco apropiado para fomentar la interrelación entre la ciudadanía.

Proporcionar a colectivos desfavorecidos o a aquellas personas que se encuentren en una situación delicada, un espacio regulado para el cultivo de alimentos destinados a su consumo personal.

Ofrecer la posibilidad de un trabajo en colaboración entre los usuarios del Baratze Parkea.

Difundir y poner en práctica pautas y criterios de agricultura ecológica como forma de cultivo a nivel local.

Favorecer la producción y recuperación de especies hortícolas tradicionales autóctonas.

Fomentar una cultura de consumo más sostenible y poner a disposición de los/as ciudadanos/as los medios necesarios para ello.

Facilitar la formación necesaria sobre agricultura ecológica, producción de compost, sistemas de aprovechamiento del agua de lluvia etc.

Ofrecer una alternativa a los centros escolares para inculcar valores de educación ambiental entre los más jóvenes, mediante la realización de actividades en torno a esta iniciativa.

2. *Ámbito de aplicación.*

La normativa se aplica a todos aquellos terrenos en régimen de arrendamiento del Ayuntamiento de Beasain, a los que provisionalmente se les asigna un uso agrícola y dotaciones anexas y complementarias de las mismas aunadas dentro del complejo de huertas del municipio.

3. *Definiciones.*

a) Usuario: Adjudicatario o titular de la licencia: Persona física o jurídica a favor de la cual, se constituye el derecho a usar y aprovechar el bien que se cede. A los efectos que aquí interesan, el beneficiario de la cesión sobre el huerto.

b) Fruto: Rendimientos que se derivan del uso del huerto, esto es, los elementos que derivan de la siembra y tratamiento de la tierra, tales como verduras, frutas, hortalizas, etc.

c) Elementos comunes: Son los elementos naturales o dispuestos en la parcela donde se encuentran los huertos y que sirven a más de uno de los usuarios o a todos en común, como son los pasillos, los vallados, las tuberías, los depósitos, pivotes de delimitación etc. Igualmente tienen consideración de elemento común los aperos de labranza y herramientas que se ponen a disposición de los usuarios.

d) Responsabilidad: Se trata de la responsabilidad que recae sobre cada uno de los usuarios de los huertos, de forma individualizada y en relación con la porción de terreno de la que sea usuario.

e) Huerta ecológica: Porción de terreno individualizada, sobre la cual se constituye el derecho del usuario para el uso, disfrute y aprovechamiento, se denominan también huertos ecológicos de ocio.

f) Parcela: Terreno en donde están enclavados los huertos.

g) Unidad familiar. Personas que conviven de hecho y de derecho en una misma vivienda, teniendo la consideración de tales los dos cónyuges o parejas de hecho (o uno de ellos en caso de viudedad, separación o divorcio) e hijos menores de edad que convivan en el mismo domicilio.

h) Grupos de interés:



EK\CV GAO-I-2017-02817

1. Beren ezaugarri bereziak direla eta, beste batzuen aldean gizarte-egoera ahulagoa duten pertsonek, hala nola langabetuak, RGI-hartzaileak, ezgaituak.

2. Interes berezikotzat hartzen diren kolektiboak, esaterako, irabazi asmorik gabeko elkarteak, baratze sozialeko erabilerarako Udalarekin hitzarmena duten fundazioak, eskolak eta abar.

*4. Erabiltzaile-Komunitat eraketa.*

Behin betikoz esleipendun diren pertsonak derrigortuta egongo dira, batetik, baratzeak kudeatzeko Erabiltzaile-Komunitate bat eratzera eta, bestetik, Zuzendaritza Batzorde bat izendatzera, elkartearen interesak kudeatuko eta ordezkatuko dituen ordezkaritza-organoaren lanak egingo dituena, batzar nagusiaren xedapen eta jarraibideekin bat etorriz.

Zuzendaritza Batzordearen barruan ondorengo kideak izango dira: lehendakaria, lehendakariordea, idazkaria, diruzaina eta gutxienez bokal bat eta gehienez hiru bokal.Eta bere eginkizunetako bat, udalarekin eta Baratze Parke Sarea proiektuko beste eragile batzuekin bitartekari-lanak egitea izango da.

*5. Lagapen-epea.*

Lursailaren aprobetxamendua edo/eta erabilera eta beraz, udal-lizentzia urtebeteko epez emango da, eta epe hori gehienez hiru urte arte luzatu ahal izango da.

Luzapenak hitzartuta daudela ulertuko da baldin eta aldeetako baten aurreabisurik ez bada jasotzen emakida edo horren ondoz ondoko luzapenak amaitu baino hilabete bat lehenago.

Esleipendunak baratzea utzi egin beharko du lizentzia-epea amaitu aurreko hilabetean, garbia eta hurrengo esleipendunak lantzeko prest.

*6. Erabilera-printzipio orokorrak.*

1. Zaintzeko eta mantentzeko printzipioa: Baratzeetako erabiltzailearen betekizun nagusia izango da lagatzen zaion lursaila modu egokian zaindu eta mantentzea, eta behar bezalako arreta edukitzea hura erabiltzean, baratzeak osasuntsu, apain eta landuta mantenduz.

2. Errespetu-printzipioa instalazioak erabiltzean: Baratze bat lagatzen zaion pertsona orok ahalegina egin beharko du gainerakoei eragozpen, kalte edo galerarik ez eragiteko.

3. Salerosketarik ez egiteko printzipioa: Baratzeen lagapen-hartzaile guztiek debekatua izango dute baratzetako produktuak xede komertzialerako edo ustiapen ekonomikorako erabiltzea.

4. Auto-hornikuntzaren printzipioa: Baratzeak lantzetik sortzen diren produktuak erabiltzaileak edo haren familia-unitateak bakarrik kontsumitu ahal izango dituzte, eta ezin daitezke erabili etekin ekonomikorik jasotzeko.

5. Ingurumen-prebentzioaren printzipioa: Baratzeen erabileraren onuradunak diren pertsonek ez dute erabiliko lurrari kalte larririk eragin diezaiokeen ongarririk edo produktu fitosanitariorik, lurra bera edo egon litezkeen akuiferoak kutsatu baititzakete; beraz, lursailaren laborantza ekonomikoaren gaineko araudian azaldutako termino zehatzei jarraitu beharko zaie.

*7. Erregimen aplikagarria eta erregulazioa.*

1. Baratzeak ustiatzeko erabilera-baimena eskatzaile guztien arteko lehiaketa bidez esleitu beharko da. Nolanahi ere, Beasaingo Udalak 3h) art.-an aipatutako interes-taldeentzat bereziki xedatutako lurzati batzuk gorde ahal izango ditu.

2. Baratze komunitarioen esleipenari, jabetzari eta gozamenari aplikatuko zaion erregimena Araudi honetan aurreikusten dena izango da.

3. Subsidiarioki, Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legean jasotako arauak aplikatuko dira, baita toki-entitateen Ondasunen Araudikoak ere.

1. Personas que por sus especiales características se consideran desfavorecidas respecto de otros, tales como parados, perceptores de RGI, discapacitados.

2. Colectivos que se consideran de especial interés tales como asociaciones sin ánimo de lucro, fundaciones que tengan convenio con el Ayuntamiento para el uso de huertas sociales, escuelas etc.

*4. Creación de Comunidad de Usuarios.*

Las personas adjudicatarias con carácter definitivo estarán obligadas a constituir una Comunidad de Usuarios para la gestión de las mismas, y a nombrar una Junta Directiva, que será el órgano de representación que gestionara y representara los intereses de la asociación, de acuerdo con las disposiciones y directivas de la asamblea general.

La Junta Directiva estará integrada por el/la presidente/ta, vicepresidente/ta, secretario/a tesorero/ra y un mínimo de un vocal y un máximo de tres vocales. Y entre sus funciones será la de intermediar con el ayuntamiento y otros agentes del proyecto Baratze Parke Sarea.

*5. Plazo de cesión.*

El aprovechamiento y/o uso del terreno y por ende, la licencia municipal, se concederá por periodos anuales, siendo susceptible de prórroga hasta un máximo de tres años.

Las prórrogas se entenderán acordadas si no mediara un preaviso de cualquiera de las partes con un mes de antelación a la finalización de concesión o de sus sucesivas prórrogas.

El adjudicatario deberá dejar, en el mes final del plazo de licencia, el huerto limpio y apto para ser cultivado por el siguiente adjudicatario.

*6. Principios generales de uso.*

1. Principio de conservación y mantenimiento: Será obligación principal del usuario de los huertos, la adecuada conservación y mantenimiento del terreno que se le ceden, debiendo aplicar la debida diligencia en su uso, manteniendo la salubridad, el ornato y el cultivo de las mismas.

2. Principio de respeto en el uso de las instalaciones: Toda persona que sea cesionaria de un huerto, deberá evitar molestias, daños o perjuicios a las demás.

3. Principio de no comerciabilidad: Los cesionarios de los huertos tendrán prohibido dedicar el cultivo de los mismos para fines comerciales o de explotación económica.

4. Principio de autoabastecimiento: Los frutos de la tierra que se originen por la siembra de los huertos, únicamente podrán ser objeto de consumo propio o de la unidad familiar, sin que puedan destinarse a percibir rendimientos económicos.

5. Principio de prevención ambiental: Las personas beneficiarias del uso de los huertos se cuidarán de no utilizar productos fertilizantes ni productos fitosanitarios que puedan provocar un grave perjuicio sobre la tierra, contaminando la misma y los acuíferos que puedan existir, en los estrictos términos expuestos en esta normativa sobre el cultivo ecológico del terreno.

*7. Régimen aplicable y regulación.*

1. La autorización de uso para la explotación de las huertas deberá adjudicarse mediante licitación entre todos los solicitantes. No obstante el Ayuntamiento de Beasain podrá reservar algunas parcelas destinadas específicamente a los grupos de interés indicados en el art. 3h).

2. El régimen que se aplicará a la adjudicación, posesión y disfrute de los huertos comunitarios, será el previsto en la presente Normativa.

3. Subsidiariamente, se aplicarán las normas contenidas en la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas, así como las del Reglamento de Bienes de las entidades locales.

EK\CV GAO-I-2017-02817

*8. Erabiltzaile eta 3h) art.-an adierazitako interes-taldeentzat emate-titulua.*

Lizentziak ematen duen baratzearen erabilerarako eskubidea lagatu ezina da, eta bere lagapenerako ezarritako baldintzak betetzen diren bitartean bakarrik izango du eragina.Erabiltzaileak ezingo ditu, inola ere, lizentziak emandako baimenaren erabilerari lotutako eskubideak laga, zergapetu edo doan edo kostubidez eman.Eskubide horiek ezingo zaizkio beste inori inola ere eskualdatu.

Lagatako lizentziaren titulua «prekarioan» izango da erabiltzailearentzat, eta Udalak, interes publikoko kausa justifikatuak badaude, edozein unetan kendu ahal izango dio lizentzia edozein erabiltzaileri, Udalaren aldetik inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izan gabe.

Interes publikoko kausa justifikatuak izan daitezke, «baratzeak» programa ordezkatzen duen edo harekin bateraezina den beste edozein udal programa onartzea, edo, baita ere, Udalak edo beste edozein Herri Administraziok hiri edo azpiegituren garapenerako edozein plan onartzea, baldin eta plan horrek berekin badakar baratzeetarako xedatutako lursailetan edozein zuzkidura publiko ezartzea. Kasu horietan, aipatutako planaren onarpenarekin batera, lursailak erabiltzea ahalbidetzen duten tituluen balioa indargabetuko da, inolako kalteordainik jasotzeko eskubiderik izan gabe.

Organo eskudunak, aipatutako lizentziak indargabe utz ditzake, lizentzian ezarritako baldintzak betetzen ez badira edota araudi honetan eta ezarritako prozeduraren arabera adjudikaziodunek betebeharrekoak gauzatzen ez badira.

*9. Baratzeen programaren funtzionamendurako jarraibideak.*

Alkateak baratzeen programako jardueren alderdi orokorrei nahiz zehatzei buruzko jarraibideak eman ahal izango ditu, esaterako, lan egiteko erak, ordutegiak, labore-motak eta abar izaera orokorrez edo bereziz zehazteko. Baratzeen erabiltzaileek derrigor bete beharko dituzte jarraibide horiek eta, baita ere, Alkatetzak, Zinegotzi delegatuak edo horren ardura duten Udaleko langileek gai horren beraren gainean erabiltzaileei egiten dizkieten ahozko ohartarazpenak.

## II. KAPITULUA

## ESLEITZEKO PROZEDURA

*10. Onuradun izateko baldintzak.*

Baratzeak erabiltzeko lizentzien onuradun izan daitezke Beasaingo udalerrian erroldatuta dauden pertsonak baldin eta herrian benetan bizi badira gutxienez esleipen-deialdiaren iragarpena argitara eman baino 2 urte lehenagotik (kontsekutiboak izan beharrik gabe), eta, gainera, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Baratzean garatuko diren nekazaritza eta laborantza jarduerak egiteko fisikoki gai izatea.

Adingabeen eskabideek aitaren, amaren edo tutoreen abala dutela aurkeztu beharko dira, eta pertsona helduak izango du erantzukizuna, Araudi honen ondorioetarako.

b) Beasaingo Udalaren zerga-betebehar eta gainerako ordainketa guztiak egunean edukitzea.

c) Beste baratze baten erabiltzaile den familia-unitateko kidea ez izatea.

d) Eskatzaileak edo bere familia-unitateko kideren batek ez edukitzea, ez jabetzan, ez gozamen-eskubidean edo alokairuan nekazaritza-jarduerarako egokia den izaera landatarreko lursailik, Goierri eskualdean.

e) Zigorrik ez izatea lehenago beste baratze ekologiko baten jabe izan delako, Araudi honetan aurreikusitako araurraketa bat dela medio.

*8. Título de concesión a usuarios y grupos de interés indicados en el art. 3h).*

La licencia otorga un uso del huerto intransferible, y solo producirá efectos mientras concurran las condiciones establecidas para su concesión. El usuario no podrá en ningún caso, ceder, gravar o disponer a título oneroso o gratuito de los derechos que se deriven de la utilización de uso autorizado por la licencia. Dichos derechos no podrán ser en ningún caso objeto de transmisión a terceros.

El título de la licencia concedida será «a precario» para el usuario, pudiendo el Ayuntamiento por causas justificadas de interés público revocar la licencia concedida en cualquier momento sin derecho a indemnización alguna por parte del Ayuntamiento.

Pueden ser causas justificadas de interés público, la aprobación de cualquier programa municipal que sustituya o sea incompatible con el programa de «huertos », o también la aprobación de cualquier plan de desarrollo urbanístico o de infraestructura por parte del Ayuntamiento o cualesquiera otra Administración Pública, que conlleve la implantación de cualquier dotación pública sobre los terrenos destinados a huertos. En estos casos, la aprobación del referido plan conllevará el dejar sin vigencia los títulos habilitantes para el uso de los terrenos, sin derecho a indemnización alguna.

El órgano competente, también podrá dejar sin vigencia las citadas licencias, si se incumplieran las condiciones que motivaron su concesión, o las obligaciones que recaigan sobre los adjudicatarios, relacionadas en esta normativa y de acuerdo con el procedimiento establecido.

*9. Instrucciones de funcionamiento del programa de huertos.*

El Alcalde podrá dictar instrucciones sobre aspectos generales o concretos de la actividad del programa de huertos a fin de disciplinar formas, horarios, tipos de cultivos etc. con carácter general o especial y que serán de obligado cumplimiento por los usuarios de los huertos, así como las concretas ordenes o indicaciones que sobre el mismo asunto, la Alcaldía, el Concejal delegado o el personal encargado del Ayuntamiento realice verbalmente a los usuarios.

## CAPÍTULO II

## PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN

*10. Requisitos para ser beneficiario.*

Podrán ser beneficiarios de las licencias de ocupación de los huertos, las personas empadronadas en el Municipio de Beasain y que efectivamente residan en la localidad durante al menos 2 años (sin que tengan que ser consecutivos) antes de la publicación del anuncio de la convocatoria para la adjudicación, y que cumplan además con los siguientes requisitos:

a) Encontrarse capacitado físicamente para la realización de las labores agrícolas y de cultivo a desarrollar en el huerto.

Las solicitudes de las personas menores de edad deberán venir avaladas por el padre, madre o tutor, siendo la persona adulta la responsable a efectos de esta Normativa.

b) Estar al corriente en el pago de las obligaciones tributarias o de otra índole con el Ayuntamiento de Beasain.

c) No ser ningún miembro de la unidad familiar usuario de otro huerto.

d) No tener en propiedad, ni en usufructo o arrendamiento ni el solicitante ni ningún miembro de la unidad familiar terrenos de naturaleza rústica, que sean aptos para actividades agrícolas, en la comarca del Goierri.

e) No haber sido sancionado en razón a la posesión anterior de huertos por incumplimiento previsto en la presente Normativa.

EK\CV GAO-I-2017-02817

Betekizun hauek betetzeaz salbuetsita egongo dira, 3h) artikuluko 2 idatzi-zatian aipatutako kolektiboak.

*11. Lizentziak emateko prozedura.*

Udalak, 3h) artikuluko 2 idatzi-zatian aipatutako kolektiboarentzat, baratze kopuru bat gordeko du.

Gainerako plazak esleitzeko, Udalak beretzat gordetzen du, baratze hauek esleitzeko orduan, egoera ekonomiko larriago batean aurkitzen diren bizikidetza-unitateei lehentasuna emateko eskubidea. Azken kasu horretan, Udaleko gizarte-zerbitzuen txosten egokia eskatuko da. Udaleko gizarte-zerbitzuen bitartez baratzea esleitzeko ezartzen diren irizpideak bizikidetza-unitatearen diru-sarrerak eta hori osatzen duen pertsona kopurua izango dira.

Baratzeen esleipenean interesatuta dagoenak eskabide bat aurkeztu beharko du Udal Erregistroan, horretarako inprimaki ofizialari jarraiki. Eskabidearekin batera, inprimaki normalizatu horretan eskatzen diren agiriez gain, ondorengo dokumentazioa ere aurkeztu beharko du:

a) NANaren edo horren ordezko den beste lege-agiri baten fotokopia.

b) Aurreko artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak edo zinpeko aitorpena.

Udalak ofizioz egiaztatuko du erroldatze eta erresidentzia benetan bi urtetik gorakoak direla, arau-hausterik batere ez dagoela eta Udalaren zerga-betebeharretan edo beste mota bateko betebehar guztietan egunean dagoela.

Herritar guztiei irekitako deialdi baten bitartez aurkeztuko du Udalak ekimen hau, eta parte hartu ahal izateko baldintzak eta horren ezaugarriak azalduko dira bertan.Une horretatik aurrera, ekimen honetan parte hartu nahi duten pertsona guztiek eskabide formal bat aurkeztu beharko dute Udaletxean, eta Udalak hartzen den erabakia jakinarazteko obligazioa izango du.

*12. Eskumena eta prozedura.*

Lizentziak emateko prozedura Alkatearen ebazpenarekin amaituko da.

Deialdi publikoa egingo da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udalaren webgunean eta Iragarki Taulan argitaratutako iragarkien bidez eta gutxienez hamar egun naturaleko epea ezarriko da eskabideak aurkezteko. Ondoren, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko da, baremazioa eta erreserbarako daudenen izenak gehituta, eta zerrenda hori Iragarki Taulan eta Beasaingo Udalaren webgunean argitaratuko da.

Interesdunek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte gehienez bost egun naturaleko epean. Epe hori amaituta, eta jasotako erreklamazioak ebatzita, onartu eta baztertuen behin betiko zerrendaren ebazpena egingo da, baremazioa azalduta. Baremazioan berdinketarik baldin badago, jendaurreko zozketa egingo da, zozketako data behar bezala iragarri ondoren.

Behin balorazioa eta, behar izanez gero, zozketa eginda, esleipendunen zerrenda eta erreserben behin betiko zerrenda Udaletxeko Iragarki Taulan eta udalaren webgunean argitaratuko dira.

*13. Esleipena eta ordezkoen zerrenda.*

Esleipendunei ematen zaien lizentziak argi azaldu beharko du zein diren baratzearen xedea, definizioa eta kokapena, erabiltzailearen eskubide eta betebeharrak eta lizentziaren indarraldia.

Eskabidea gutxi balioetsi zaielako baratzeren bat esleitzeko lizentziarik eskuratzerik izan ez duten pertsonak, jasotako balorazioaren arabera, ordezkoen zerrenda batean sartuko dira, baratze mota bakoitzaren barruan lortu duten balioespenaren arabera. Ordezkoen zerrenda hori bajak betetzeko erabiliko da

Del cumplimiento de estos requisitos quedarán exentos los colectivos a que se hace referencia en el apartado 2 del art. 3h).

*11. Procedimiento para la concesión de licencias.*

El Ayuntamiento destinará un número de huertas a los grupos de interés a los que se hace referencia en el apartado 2 del art. 3h).

Para adjudicar las restantes plazas, el Ayuntamiento se reserva el derecho a priorizar la concesión de estas huertas a aquellas unidades convivenciales que puedan encontrarse en una situación económica más delicada. En este último caso, se solicitará el consiguiente informe de los servicios sociales del Ayuntamiento. Los criterios que se establecen para la adjudicación de la huerta por la vía de los servicios sociales municipales serán el nivel de ingresos de la unidad convivencial y el n.º de personas que forman parte de la misma.

La persona interesada en la adjudicación de los huertos deberá presentar solicitud en el Registro municipal, con arreglo al modelo oficial. A la solicitud deberá acompañar, además de los documentos que se exijan en el aquel modelo normalizado, la siguiente documentación:

a) Fotocopia del DNI o documento que legalmente le sustituya.

b) Documentos o declaración jurada de que cumple los requisitos establecidos en el Artículo anterior.

El Ayuntamiento comprobará de oficio el empadronamiento y la residencia efectiva desde hace dos años, la ausencia de infracciones cometidas y el estar al corriente de las obligaciones tributarias o de otra índole para con este Ayuntamiento.

El Ayuntamiento presentará esta iniciativa a través de una convocatoria abierta a toda la ciudadanía en la que se explicarán las características y condiciones para poder tomar parte en la misma. A partir de ese momento, todas las personas que quieran tomar parte en la iniciativa deberán presentar una solicitud formal en el Ayuntamiento, quien tendrá el deber de comunicar la resolución que se adopte.

*12. Competencia y procedimiento.*

El procedimiento de concesión de licencias finalizará con una Resolución del Alcalde.

Se efectuará una convocatoria pública mediante anuncios publicados en el Boletin Oficial de Gipuzkoa, en la página Web y en el tablón de edictos, otorgando al menos un plazo de diez días naturales para presentar instancias. A continuación se aprobará la lista provisional de admitidos y excluidos, conteniendo la baremación y lista de reserva, que se publicará en el Tablón de anuncios y en la página web de Ayuntamiento de Beasain.

Por los interesados se podrán presentar reclamaciones en el plazo máximo de cinco días naturales. Finalizado dicho plazo, y resueltas las reclamaciones recibidas, se dictará resolución que contenga la lista definitiva de admitidos y excluidos con la baremación. En caso de empates en la baremación se efectuará un sorteo público, cuya fecha se anunciará oportunamente.

Efectuada la valoración y el sorteo en su caso, se publicará la lista de adjudicación y lista de reserva definitiva, publicándose en el Tablón de anuncios y página web del Ayuntamiento.

*13. Adjudicación y lista de suplente.*

La licencia que se conceda a los adjudicatarios, deberá especificar la finalidad, la definición y emplazamiento del huerto, los derechos y obligaciones del usuario y la vigencia de la licencia.

Aquellas personas que por menor valoración de sus solicitudes, no hubieran sido beneficiarias de la obtención de una licencia para la adjudicación de algún huerto, pasarán a integrar una lista de suplentes para cada uno de los tipos de huertos, en función de la valoración que hubiesen obtenido y que

EK\CV GAO-I-2017-02817

baldin eta lizentziaren bitartez jasotako eskubidea nahita edo ezinbestez galtzen bada edo eskubide horri uko egiten bazaio; kasu horietan, hurrengo hautagaiari deituko zaio, aipatutako zerrendan duen ordenaren arabera, lizentzia indarrean dagoen epearen barruan eta laborantzarako aldi emankorraren barruan.

Baratzearen erabilera baimentzen duen lizentzia esleitu ondoren, adjudikaziodunak autolikidatu egin beharko du urteko kuotaren kopurua eta bermeari dagokion zenbatekoa jarri, esleitutako lizentzia jaso ahal izateko. Esleipenerako epea igaro ondoren itzuli egingo da bermea, baldin eta denboraldi berri horretarako beste baratze baten esleipendun izan ez bada.

3h) artikuluan aipatutako interes taldean edozein ordainketa egitetik eta fidantza aurkezteko eginbeharrez salbuetsita egongo dira.

*14. Baremazio-irizpideak.*

Baremazio-irizpideak dagokion lehiaketaren deialdian zehaztuko dira.

Lurzatiak esleitzeko baremazio-irizpideak finkatuko dituzten printzipio nagusiak.

Beasaingo Baratze Parkean era guztietako jendea bil dadila sustatuko da.

Berdintasunaren ikuspegitik, ordezkaritza justua bermatzeari begira, eskatzaileen sexu-proportzio berdinetan egingo da emakida, bai lehentasuna izango duen taldearen barruan eta bai gainerako taldeetan ere.

Kultura eta hizkuntza aldetik ere dibertsitatea sustatzeari begira, irizpide iraunkorrak barneratuko dira baratzeak abian jarri ondoren, eta horretarako, jarduera desberdinak antolatuko dira.

Baratzeak hiru taldetan sailkatuko ditugu:

Talderen batean lurzati guztiak betetzen ez badira, beste talde batzuei irekiko zaizkie.

— 1. taldea: Lurzatien % 30, 3h) artikuluko 1 idatz-zatian aipatutako interes-taldeei esleituko zaizkie.

— 2. taldea: Lurzatien % 35a, 3h) artikuluko 2 idatz-zatian aipatutako interes-taldeei esleituko zaizkie.

— 3. taldea: Lurzatien % 35a gainerako herritarrei esleituko zaizkie.

Lurzatiak ondorengo puntuazioaren arabera esleituko dira:

1. taldea: 3h) artikuluko 1 idatz-zatian aipatutako interestaldean dauden pertsonen kasuan.

— Familia-unitateko kide guztiak langabezian egotea: 4 puntu.

— Familia-unitateko kideren bat langabezian egotea: 2 puntu.

— Familiaren diru-sarrerak, 0 eta 12 puntu artean, ekitaldi honetarako gizarte-zerbitzuen alorreko laguntzetarako xedatutakoaren arabera: 2 puntu.

2. taldea: 3h) artikuluko 2 idatz-zatian aipatutako interestaldeen kasuan.

— Baliabide gutxi dituzten edo premia bereziak dituzten pertsonekin lan egiteko helburu soziala duten elkarteak: 3 puntu.

— Ingurumen-helburuekin loturiko helburu soziala duten elkarteak: 2 puntu.

— Udalarekin hitzarmena izatea: 2 puntu.

3. taldea: Gainerako herritarren kasuan.

— % 33ko elbarritasuna edo handiagoa duten pertsonak: 2 puntu.

— Familia-unitatearen diru-sarrerak balioetsiko dira.

será utilizada para cubrir bajas para los casos de renuncia o pérdida voluntaria o forzosa del derecho otorgado a través de la licencia, realizándose un llamamiento al siguiente candidato según el orden que ocupara en la lista referida, dentro del periodo de vigencia de la licencia y del periodo fértil del cultivo.

Una vez adjudicada la licencia que autoriza el uso del huerto, el adjudicatario deberá autoliquidar el importe de la cuota anual y depositar el importe de la fianza correspondiente establecido a fin de recibir la correspondiente licencia concedida. La fianza se devolverá una vez transcurrido el plazo de adjudicación, sin haber resultado adjudicatario de otro huerto para esa nueva temporada.

Los grupos de interés a que se hace referencia en el art. 3h) quedarán exentos de pago alguno y de la presentación de fianza.

*14. Criterios de baremación.*

Los criterios de baremación se especificarán en la convocatoria para la licitación correspondiente.

Principios generales para establecer los criterios de baremación para la adjudicación de las parcelas.

Se promoverá que en el Baratza Parkea de Beasain se reúna todo tipo de gente.

Desde el punto de vista de la igualdad, con el fin de garantizar una representación justa, la concesión se hará en proporciones sexuales iguales de los solicitantes, tanto en el grupo prioritario, como en los demás grupos.

Para Promover la diversidad cultural y lingüística, se introducirán los criterios sostenibles una vez se hayan puesto en marcha los huertos, organizando diferentes actividades.

Las huertas las clasificaremos en tres grupos:

En caso de no llenarse las parcelas por algún grupo, se abrirían a otros grupos.

— Grupo 1: 30 % de las parcelas se destinaran a grupos de interés indicados en el apartado 1 del art. 3h).

— Grupo 2: 35 % de las parcelas se destinarán a grupos de interés indicados en el apartado 2 del art. 3h).

— Grupo 3: 35 % de las parcelas se destinarán al resto de ciudadanos.

Las parcelas se adjudicarán según la siguiente puntuación:

Grupo 1: En el supuesto de grupos de interés indicados en el apartado 1 del art. 3h).

— Estar todos los miembros de la unidad familiar en situación de desempleo: 4 puntos.

— Estar algún miembro de la unidad familiar en situación de desempleo: 2 puntos.

— Ingresos familiares, de 0 a12 puntos según lo dispuesto para ayudas en materia de servicios sociales para este ejercicio: 2 puntos.

Grupo 2: En el supuesto de grupos de interés indicados en el apartado 2 del art. 3h).

— Asociaciones cuyo objetivo social sea trabajar con personas con pocos recursos o necesidades especiales: 3 puntos.

— Asociaciones cuyo objeto social esté relacionado con fines medioambientales: 2 puntos.

— En el caso de colegios: Estar trabajando la Agenda 21: 2 puntos.

Grupo 3: En caso del resto de ciudadanos.

— Personas con minusvalía igual o superior al 33 %: 2 puntos.

— Se valorarán los ingresos de la unidad familiar.

EK\CV GAO-I-2017-02817

*15. Lizentziak eskualdatzea eta iraungitzea.*

Baratzeak erabiltzeko eskubidea ematen duten lizentziak:

a) Ezin zaizkio hirugarren bati eskualdatu.

b) Epea betetzean iraungiko dira.

c) Ezeztatu edo baliogabetu ahal izango dira:

1. Bi aldeak ados jarrita.

2. Ebazpen judizial baten bitartez.

3. Esleipendunak uko egiteagatik.

4. Araudi honetan edo dagokion lizentzia ematen duen ebazpenean jasotako betebehar eta xedapenak ez betetzeagatik, aurrez interesatuari entzuteko aukera eman eta espedientea izapidetu ondoren.

5. Langabetuek urtea bukatu aurretik (abendua) langabezia-egoeran jarraitzen dutela frogatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute Udaletxean. Bere lan-egoera aldatzen bada, baratzea utzi egin beharko dute eta itxarote-zerrendara igaroko dira.

6. Baratze horiek kokatuta dauden eremurako aurreikusitako antolamendu xehakatuko agiriak onesten direnean.

Lizentziak indargabetzen badira, Udalaren partetik ez da inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

Esleipenduna hiltzen bada, emakida iraungita geratuko da eta haren ondorengoek ez dute inolako eskubiderik izango.Udalak ikusten badu esleipen-aldian pertsona horrek baratzea egoki kudeatu duela, haren alargunari utziko dio baratzearen erabilera, horretarako eskabidea egina izanez gero, baina nolanahi ere Udalak onetsi egin beharko du».

III. KAPITULUA

ERABILERA-BALDINTZAK

*16. Erabilera-arauak.*

1. Baratzeak erabiltzeko baimenen onuradunek honako erabilera-arau hauek bete beharko dituzte:

— Administrazio-baimenean zehazten diren landare-espezieak landatzeko erabiltzea.

— Nekazaritza ekologikoaren irizpideak erabiltzea, eta norberaren haziak edo jatorri ekologikoko landareak edo haziak erabiltzea (hobe tokikoak bertakoak badira). Ongarri organikoak bakarrik erabili ahal izango dira.

*15. Transmisibilidad y extinción de las licencias.*

Las licencias que concedan el derecho al uso de los huertos:

a) No serán transmisibles a terceras personas.

b) Se extinguirán por vencimiento del plazo.

c) Podrán ser revocadas o anuladas:

1. Por mutuo acuerdo.

2. Por resolución judicial.

3. Por renuncia del adjudicatario.

4. Por incumplimiento de las obligaciones y disposiciones contenidas en el presente Reglamento o en la resolución por la que se conceda la correspondiente licencia, previa la tramitación de expediente con audiencia al interesado.

5. Los parados deberán presentar en el Ayuntamiento antes de la finalización del año (diciembre) certificado de seguir desempleado. En caso de cambiar su situación laboral deberán dejar el huerto y pasarán a la lista de espera.

6. La aprobación de documentos de ordenación pormenorizada previstos para el área en donde se ubican las huertas.

La revocación de las licencias lo será sin derecho a indemnización alguna por parte del Ayuntamiento.

En caso de fallecimiento, se extinguirá la concesión y sus sucesores no tendrán ningún derecho. Si el Ayuntamiento viera que durante el tiempo de la adjudicación esa persona ha gestionado correctamente el huerto, le dejaría el uso del huerto a la viuda o viudo, si hubiera alguna solicitud de ese tipo, siempre con la aprobación del Ayuntamiento».

CAPÍTULO III

CONDICIONES DE USO

*16. Normas de uso.*

1. Las personas beneficiarias de las autorizaciones sobre los huertos, vendrán obligadas al cumplimiento de las siguientes normas de uso:

— Destinar los huertos al cultivo y plantación de aquellas especies vegetales que, en su caso, se especifiquen en la autorización administrativa.

— Utilizar criterios de agricultura ecológica, utilizar su propia semilla, o bien planta o semilla de procedencia ecológica, preferentemente de variedad autóctona local. Sólo se podrán utilizar abonos orgánicos.

| *Produktuak edo lanak* | *Debekatuta daude* | *Baimenduta daude* |
|---|---|---|
| ONGARRIAK | - Sintesiko ongarri organiko guztiak (Europan saltzen diren guztiak) eta produktu kutsatuekin egindako konpostak (lastoak, simaurrak, pestizida eta herbizidekin tratatutako belar eta ongarri organikoak).<br>- Prozedura kimikoen bitartez lortutako ongarri mineral guztiak (nitrogenatuak, fosfatatuak, potasikoak, magnetikoak eta abar). | - Zizareen humusetik eratorritako ongarriak, konpostatutako simaurrak (konpostajea hartzidura aerobikoko prozesutzat hartuta), ongarri berdeak eta ongi deskonposatutako uzten hondarrak, eta kutsatu gabeko hondakinekin egindako konpostak.<br>- Jatorri naturaleko ongarri mineralak (txikitutako fosfato naturalak, silizeen hautsak, kareharri txikituak, dolomitak eta abar). |
| TRATAMENDU FITOSANITARIOAK | - Intsektizida, fungizida eta akarizidak eta sintesi kimikotik eratorritako beste pestizidak edo produktuak erabiltzea. | - Substantzia natural mineral, begetal edo animalienetan oinarrituta sortutako fungizidak (Bordeleko salda, Borgoinako salda eta abar).<br>- Landareekin egindako produktuak (beratzeak, infusioak, egosketak, gernuak). |
| BELAR TXARRAK | - Debekatuta dago edozein sintesiko herbizida kimiko erabiltzea. | - Belar lehiakorren kontrolerako metodo biologikoak erabil daitezke (estaltzaile organikoak, jorrai naturala edo erdi-eskuzkoa, zapalda sakoneko laborantza). |



EK\CV GAO-I-2017-02817

| | | |
|---|---|---|
| HAZIAK ETA LANDAREAK | - Genetikoki aldatutako mota eta klase guztietako organismoak (transgenikoak). | - Nekazaritza biologikotik eratorritako barazki, sustrai, erraboil, tuberkulu eta hazien erabilera.<br>- Produktu horien erabilera, ohiko laborantzetatik etorri arren, produktu kimiko sintetikoekin landu ez badituzte. |

| *Productos o trabajos* | *Está prohibidos* | *No están prohibidos* |
|---|---|---|
| ABONOS | - Todos los abonos orgánicos de síntesis (la totalidad de los que se comercializan en Europa) y los compost elaborados con productos contaminados (pajas, estiércol, hierbas y abonos orgánicos tratados con pesticidas y herbicidas).<br>- Todos los abonos minerales (nitrogenados, fosfatados, potásicos, magnéticos, etc.) obtenidos por procedimientos químicos. | - Los abonos procedentes por de humus de lombrices, los estiércoles compostados (entendido el compostaje como un proceso de fermentación aeróbica), abonos verdes y resto de cosechas perfectamente descompuestos, así como los compost elaborados a partir de residuos no contaminados.<br>- Los abonos minerales de origen natural (fosfatos naturales molidos, polvos de silíceas, calizas molidas, dolomitas, etc.). |
| TRATAMIENTOS FITOSANITARIOS | - La utilización de insecticidas, fungicidas y acaricidas y otros pesticidas o productos procedentes de la síntesis química. | - Los fungicidas preparados a base de sustancias minerales, vegetales o animales (caldo Bordelés, caldo Borgoñés, etc.).<br>- Los productos preparados a base de plantas (maceraciones, infusiones, decocciones, orines). |
| MALAS HIERBAS | - Queda prohibida la utilización de cualquier herbicida químico de síntesis. | - Queda autorizada la utilización de los métodos biológicos de control de hierbas competidoras (acolchado orgánico, escarda natural o semimanual, cultivo en bancal profundo). |
| SEMILLAS Y PLANTAS | - Todos los organismos modificados genéticamente de cualquier tipo y variedad (transgénicos). | - La utilización de hortalizas, raíces, bulbos, tubérculos y semillas que proceden de la agricultura biológica.<br>- La utilización de estos productos, que aunque procedentes de cultivos convencionales, no hayan sido tratados con productos químicos de síntesis. |

— Erabiltzeko utzi diren lursaila, instalazioak, lanabesak eta tresnak arretaz zaintzea.

Baratzeen erabiltzaileek nekazaritzarako behar dituzten lanabesak mailegutan jasotzen badituzte, behar bezala erabili eta zaindu beharko dituzte, ez hondatzeko. Modu okerrean erabili izanaren ondorioz kaltetu edo hondatu diren ondasunak eta tresnak konpondu edo berritu egin beharko dituzte, baita galdu egiten badituzte ere.

Lanabesak gortzeko lekuak garbi eta egoera onean mantendu beharko dira.

— Jardueraren arduradunek emandako jarraibideak uneoro errespetatzea. Jardueraren inguruan ematen zaizkien arauak errespetatzea, urasketako uraren, ongarrien, lanabesen eta, oro har, uzten zaizkien elementu guztien erabilerari dagokionez.

— Uneoro gizalegezko jokabidea izatea, eta baratzeen gainerako erabiltzaileekiko begirunea erakustea, enbarazurik ez egitea, eta horiei kalteak edo zauriak eragin diezazkiekeen tresnarik ez erabiltzea.

— Jatorriz utzitako lursailaren egitura eta azalera bere horretan mantentzea; ez da inolako obrarik edo itxiturarik egin ahal izango, eskumena duen udal-organoak aldez aurretik horretarako baimena ematen ez badu.

— Jardueraren teknikari arduradunei baratzeei, instalazioei nahiz utzitako materialari eragiten dieten gertakari, lapurreta,

— Mantener con la debida diligencia la parcela, las instalaciones, útiles y herramientas que se ceden para el uso.

Las personas usuarias de los huertos que, en su caso, reciban en concepto de préstamo los útiles necesarios para realizar la actividad agrícola, habrán de utilizar éstos con el debido cuidado para evitar su deterioro. Deberán reparar o reponer aquellos bienes o utensilios que resulten dañados o destruidos por el uso inadecuado de los mismos o resulten extraviados.

Los espacios destinados a guardar las herramientas deben mantenerse limpios y en buen estado.

— Respetar en todo momento las indicaciones que les den las personas responsables de la actividad. Respetar las normas dadas sobre la actividad en relación con el uso del agua de las albercas, los abonos, las herramientas y en general, de cualquier elemento que se les facilite.

— Mantener en todo momento un comportamiento cívico adecuado y respetuoso con las demás personas usuarias de los huertos, evitando molestias y absteniéndose de la utilización de artilugios que pudieran provocar daños o lesiones a los mismos.

— Mantener la misma estructura y superficie de la parcela que se cede en origen, no se podrá realizar ningún tipo de obra o cerramiento que no sea previamente autorizado por el órgano competente del Ayuntamiento.

— Poner en conocimiento de las personas responsables municipales de la actividad cualquier incidencia, usurpación,

EK\CV GAO-I-2017-02817

arazo, kalte edo hondamen oro jakinaraztea, hura beste erabiltzaileren batek nahiz kanpoko norbaitek eragin.

— Erabiltzeko baimena amaitzean, lursaila garbi eta hutsik uztea. Baratzeak esleipendunek jaso zituzten antzeko egoeran itzuli beharko dira.Aurreikusitako erabileraren ondorioz, instalazioetan ohi baino hondamen handiagoak sortuz gero, erabiltzaileek horiek jatorrizko egoerara bihurtu edo gauzak berritu beharko dituzte; erabiltzaileren batek betebehar hori betetzen ez badu, Udalak egin ahal izango du zuzenean, eta, gero, Administrazioak kasu horietarako duen ahalmena erabili ahal izango du, hari ordainarazteko.

— Erabiltzez bukatzean, lanabesak itzultzea. Maileguan jasotako lanabesak eta gainerako tresnak garbi eta egoera onean itzuli beharko dira, eta zer edo zer hondatuz gero, jakinarazi egin beharko da.

— Baratzeetan materialak edo lanabesak ez uztea edo pilatzea, lurra lantzeko ezinbestekoak badira salbu.

— Ureztapena baratzeen instalazioetan erabiltzaileen eskura jarritako bitartekoak erabiliz egitea. Erabiltzaileek ureztatzeko ura alferrik ez galtzen saiatu beharko dute, baita ur erabilgarriaren neurriz kanpoko kontsumoa eragiten duten ureztatze-metodoak ez erabiltzen ere. Era berean, debekatuta egongo da horretarako egokitutako lekuetatik kanpoko ura ekartzea, erabiltzaileak hura etxetik edo iturri publikoetatik ontzietan ekartzen badu salbu. Udalak baratzeen erabiltzaileek ura erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasa edo kanon bat ezarri ahal izango du, hornidura-kostuak aintzat hartuta.

— Baratzeak landu edo erabiltzeari ez uztea. Esleipendunak garaiz egin beharko ditu baratzea lantzearen inguruko jarduera guztiak, eta hura erabiltzeko eskubidea galduko du, arrazoi justifikaturik gabe, hura bertan behera utzi duela atzematen bada. Baratze bat bertan behera utzi dela ulertuko da bertan landatutako laboreak zaindu gabe daudela nabarmena bada, azaleraren % 50 basa-landareek hartuta badago, edo bertako izurri eta bizkarroien ugaritasunak aldameneko lursailetako laboreei kalte egin badiezaieke.Baratze bat bertan behera utzita dagoenean, erabiltzaileak –ohartarazi ostean– zazpi egun naturaleko epea izango du hura egokitzeko. Hala egin ezean, soildu egingo da baratzea, eta erabiltzaileak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango. Baratzea lantzeko aldi baterako ezintasun-kasuan, erabiltzaileak lehenbailehen jakinarazi beharko die egoera jardueraren arduradunei.

— Lursailaren erabilerari dagozkion zereginak norberak egitea, ezinbesteko kasuetan salbu; horrelakoetan, behar bezala egiaztatu beharko da Udalaren aurrean. Nolanahi ere, lizentziaren titularrak senitartekoen laguntza jaso ahal izango du baratzea landu eta mantentzeko orduan; dena den, galarazita egongo da esleipendunaren lekuan beste inor subrogatzea.

— Baratzeen kudeaketaz arduratzen den erakundeak programatutako beste erakunde batzuekiko lankidetza-proiektuetan parte hartzea.

— Baratze bakoitzean zuzenean edo baratze guztiei zerbitzu ematen dieten konpostatzeko lekuetan konpostatzeko betebeharra ezarri da.

2. Baimenaren titularrak erabilera-arau horietakoren bat betetzen ez badu, Udalak bertan behera utzi ahal izango du hura.

*17. Berariazko debekuak.*

— Lurzorurako txarrak diren landareak landatzea.

— Aldaketa transgenikoak izan dituzten espezieak erabiltzea.

— Etxolen, fatxaden edo barrualdeen egitura aldatzea (iltzeak jartzea, zulatzea, pintatzea eta abar).

anomalía, daño o perjuicio que afecte a los huertos, a sus instalaciones o al material prestado, ya provenga de las demás personas usuarias o ajenas al uso de aquéllos.

— Dejar la parcela limpia y vacía una vez finalizada la autorización de uso. Los huertos serán devueltos en condiciones análogas a las que tenían cuando fueron cedidas. En casos de deterioro de las instalaciones que no fuera el normal a causa del uso previsto, las personas usuarias deberán reponer o restaurar las cosas a su estado de origen, y en caso de que alguna no cumpliera con su obligación de reparar, lo podrá hacer directamente el Ayuntamiento a costa de aquella, ejerciendo las potestades para el reintegro que ostenta la Administración en estos supuestos.

— Devolver las herramientas a la finalización del uso. Las herramientas y demás útiles recibidos en préstamo, deberán ser devueltos limpios y en perfecto estado, comunicando cualquier desperfecto detectado.

— Evitar el depósito o acumulación de materiales o herramientas en los huertos, que no fueran los estrictamente necesarios para el cultivo de la tierra.

— Realizar el riego con los medios que se pongan a disposición de las personas usuarias en las instalaciones de los huertos. Se evitará en cualquier caso el despilfarro de agua o la utilización de métodos de riego que provoquen un consumo anormal del agua disponible. Asimismo, queda prohibida la traída de aguas desde cualquier otro punto que no se encuentre habilitado al efecto, salvo el agua envasada que la persona usuaria traslade desde su domicilio o fuentes públicas. El Ayuntamiento podrá establecer el pago de una tasa o canon por el aprovechamiento del agua por las personas usuarias de los huertos, en función de los costes que conlleve el suministro.

— No abandonar el cultivo o uso de los huertos. La persona adjudicataria tiene la obligación de realizar puntualmente todas las actividades relacionadas con el cultivo de la huerta, y perderá su derecho a usarla si se detecta un abandono de la misma por causas no justificadas. Se considerará que una huerta está en situación de abandono cuando sea evidente la falta de cuidados de los cultivos implantados, o bien el 50% de la superficie se encuentre ocupada por hierbas silvestres o bien la abundancia de plagas o parásitos supongan un riesgo para la salud de los cultivos de las parcelas colindantes. Cuando una huerta esté en situación de abandono, la persona usuaria, una vez avisada, dispondrá de siete días naturales para el acondicionamiento de la misma. De lo contrario, se procederá a su desbroce, sin derecho a indemnización alguna. En caso de imposibilidad temporal para el cultivo de la huerta, deberá comunicar esta circunstancia a las personas responsables de la actividad a la mayor brevedad posible.

— Ejecutar personalmente las labores propias del uso de la parcela, salvo los casos de fuerza mayor que se deberán acreditar ante el Ayuntamiento. No obstante, quien sea titular de la licencia se podrá ayudar de familiares, en labores de apoyo en el cultivo y mantenimiento, sin que se permita en ningún caso la subrogación de otras personas en el lugar del adjudicatario.

— Participar en los diferentes proyectos de colaboración con otras entidades que se programen por la entidad responsable de la gestión de los huertos.

— Se establece la obligación de compostar directamente en cada huerto, y/o mediante compostadores comunitarios que den servicio al conjunto de huertos.

2. Si la persona titular de una autorización incumple cualquiera de las anteriores normas de uso, el Ayuntamiento podrá revocar la misma.

*17. Prohibiciones expresas.*

— Cultivar plantas degradantes para el suelo.

— Emplear especies modificadas transgénicamente.

— Realizar modificaciones en la estructura de las casetas, fachadas o interiores (clavar, taladrar, pintar, etc.).

EK\CV GAO-I-2017-02817

— Esekilekuak edo inguruaren itxura aldatzen duen beste edozein elementu eraikitzea edo jartzea.

— Edozein motatako ibilgailuak sartzea, honako hauek salbu: haurren kotxeak edo gurpildun aulkiak, edo lagapen-hartzaileen mugikortasuna errazteko xedea duten beste batzuk.

— Baratzeen barruan animaliak eraman edo paseatzea.

— Su egitea edo erabiltzea, haren helburua dena dela.

— Guztiz debekatuta dago legez kanpoko landareak eta/edo landare psikotropikoak landatu edo ereitea.

*18. Ordutegia.*

Esparrua irekitzeko ordutegi jakin bat ezarriko da, eta baratzeen erabiltzaileei haren berri emango zaie.

Baimenen onuradunei dagokien erabilera xede horretarako ezarri den ordutegiaren barruan gauzatu beharko da.

Nolanahi ere, baimenak edo eskumena duen organoak gerora emandako egintzak finkatutako ordutegia aldatu ahal izango du, kasuan kasuko arrazoiak direla eta.

*19. Hondakinen tratamendua.*

Baratzeen erabiltzaileak lursaila garbi mantentzeaz arduratuko dira, eta, horretarako, hondakin organikoak konpostategian utzi beharko dituzte, horiek modu egokian deskonposa daitezen.

Gainerako hondakinak Udalak xede horrekin jarritako edukiontzian edo tokian bakarrik utziko dira.

*20. Ureztatzeko baldintzak.*

1. Baratzeen titularrek beren eskura jarritako ureztatze-sistema erabili beharko dute, hau da, ur-askako urarekin ureztatu beharko dute, ureztagailuak erabiliz.

2. Ezin izango da beste elementurik erabili, eta debekatuta dago ihinztagailuak edo ura aldameneko baratzera bota dezaketen elementuak erabiltzea.

3. Debekatuta dago ur-hargunea irekita uztea, behar baino ur gehiago gastatzea edo ezohiko ur-kontsumoa eragiten duten ureztatze-metodoak erabiltzea; hori errespetatzen ez bada, lizentzia gal daiteke.

4. Debekatuta dago baratzeak ureztatzeko ura horretarako prestatuta ez dauden lekuetatik ekartzea.

*21. Guztien erabilerarako erremintak.*

Kutxa Ekoguneak guztien erabilerarako erremintak helaraziko dizkio erabiltzaileen Elkarteari. Urtero, Elkarteak hasierako inbentarioa mantentzen dela berretsi beharko dio Udalari, eta, beraz, Elkarteak falta diren edo hautsita dauden erremintak ordezkatu, eta hondatuta dauden erremintak konpondu beharko ditu.

*22. Mantentze- eta finantzaketa-gastuak.*

1. Baratzearen erabiltzaileak bere gain hartu beharko ditu, lizentzia indarrean den denboraldi osoan zehar, baratzearen laborantzak eragindako gastuak, hala nola, ongarriak, ereindako landareak eta laborantzarako beharrezkoak diren gainerako guztiak, eta landaketa ekoizteko moduan eta behar bezala zainduta mantendu beharko du.

2. Erabiltzaileek nahitaez ordaindu beharko dituzte baratzeen erabilerak edo erabiltzaileen komunitateak eragindako kostuak ordaintzeko jartzen zaizkien karga guztiak (tasa, kanonak eta abar), Udalak Zuzenbideari jarraiki eta behar bezala justifikatuta onartu baditu.

3. Udalak kanon bat aplikatuko du baratzearen laborantzagatik, baita fidantza bat ere, udal-jabari publikoko eremuaren erabilera egokia bermatzeko:

a) Baratze bat urtebetez erabili ahal izateko kanona:

— Construir o colocar tendederos o cualquier otro elemento que altere el aspecto del entorno.

— Introducir vehículos de cualquier tipo, a excepción de coches de bebés o sillas de ruedas otros cuyo objeto sea facilitar la movilidad de las personas cesionarias.

— Llevar o pasear animales dentro del recinto de huertos.

— Hacer o utilizar fuegos cualquiera que sea su objeto.

— Queda totalmente prohibida la siembra y/o plantación de plantas psicotrópicas o prohibidas por ley.

*18. Horarios.*

Existirá un horario definido de apertura del recinto, que será comunicado a las personas usuarias de los huertos.

El uso que corresponde a las personas beneficiarias de las autorizaciones, deberá practicarse dentro de los horarios establecidos.

No obstante lo anterior, la autorización o cualquier acto posterior dictado por el órgano competente, podrán, dadas las circunstancias que lo motiven, modificar los horarios establecidos.

*19. Tratamiento de residuos.*

Los usuarios de los huertos, serán responsables del adecuado estado de limpieza de la parcela y para ello deberán depositar los restos orgánicos en la compostadora para su descomposición.

El resto de residuos serán depositados únicamente en el espacio o contenedor destinado o colocado por el Ayuntamiento al efecto.

*20. Condiciones para el riego.*

1. Los titulares de los huertos tienen que utilizar el sistema de riego que hay a su disposición, es decir, regar con el agua de los depósitos utilizando regaderas.

2. No se pueden utilizar otros elementos, prohibiendo el uso de aspersores o cualquier elemento que pueda echar agua al huerto de al lado.

3. Está prohibido dejar abierta la toma de agua, gastar más agua de lo debido o utilizar sistemas de riego que suponen un consumo de agua anormal; si no se respeta se puede perder la licencia.

4. Queda prohibido traer agua de sitios que no estén adecuados para ello, con el fin de regar los huertos.

*21. Herramientas comunes.*

Kutxa Ekogunea facilitará herramientas para uso común a la Asociación de usuarios. Cada año, la Asociación tendrá que confirmar al Ayuntamiento que el inventario inicial se mantiene y, por lo tanto, la Asociación se responsabilizará de reponer las herramientas que falten o que estén rotas y de arreglar las herramientas dañadas.

*22. Gastos de mantenimiento y financiación.*

1. El usuario del huerto debe hacerse cargo de los gastos que comporte el cultivo del huerto en toda la temporada de vigencia de la licencia, como los abonos, las plantas sembradas y demás necesarias para el cultivo y manteniendo la plantación apta para la producción y en condiciones de cuidado debidas.

2. Los usuarios estarán obligados a soportar el canon que más adelante se indica para sufragar los costes que se deriven de la utilización de los huertos.

3. El Ayuntamiento aplicará un canon por el cultivo del huerto y una fianza en garantía de la correcta utilización del terreno habilitado para huerta con arreglo a las siguientes cuantías:

a) Canon por uso de cada huerto y año:

EK\CV GAO-I-2017-02817

Kanona 10 €-koa izango da baratze eta hilabete bakoitzeko, eta 3h) artikuluan aipatutako interes taldeek ez dute kanona ordaindu beharrik izango.

b) Fidantza. Fidantza bat ordaindu behar da, udal-eremu publikoaren erabilera zuzena bermatzeko, 100 €-koa.

3h) artikuluan aipatutako interes taldeek ere ez dute hau aurkeztu beharrik izango.

Oro har, baratzea erabiltzeko baimena ematen duen udallizentzia eskuratzen den unean bertan ordainduko dira lehen urteko kanona eta fidantza. Hurrengo urteetan, kanona baimenaren lehen urtea amaitu baino lehen ordaindu beharko da.

4. Ur-kontsumoari dagozkion fakturak igorriko dira. Esleipendun bakoitzak izandako kontsumoaren arabera ordainduko du faktura, Erabiltzaile-Komunitatearen bitartez.

IV. KAPITULUA

ERANTZUKIZUN-ERREGIMENA

*23. Erantzukizun-erregimena.*

1. Erabiltzaileak izango dira lursailak erabili eta gozatu bitartean beren buruari edo beste pertsona batzuei eragindako kalteen erantzule, horrelakorik gertatuz gero. Udala ez da, inola ere, elkarri edo beste pertsona batzuei eragindako kalteen erantzule izango.

Lursailak erabiltzeko baimenak eskuratzeko deialdian eskabidea egiten bada, eskaera-egileek jarduerak eragindako arriskuak bereganatzen dituztela esan nahi du, eta Udalak ez du erantzukizunik izango kalte materialak gertatuz gero, edo erabiltzaileek nahiz horien laguntzaileek, erorketen, istripuen, kolpeen edo antzekoen ondorioz, kalte pertsonalak jasaten badituzte.

2. Baimenaren titularrak bere gain eta ausaz erabiliko du lursaila.Udala ez da izango fenomeno meteorologikoak direla eta (kazkabarra, uholdeak...) baratzeetan sor daitezkeen kalteen erantzule.

3. Udalak ez du erantzukizunik bereganatuko baratzeetan kalteak, lapurretak eta ekintza bandalikoak gertatzen badira. Era berean, ez du hura zaintzeko ardurarik izango.

4. Udalak ofizioz abiarazi ahal izango du baratzeen esleipendunek, erru edo arduragabekeria larrien eraginez, izan ditzaketen erantzukizunak argitzeko prozedura.

*24. Kalte-galerak ordaintzea.*

1. Aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera, erantzuletzat jotzen diren erabiltzaileek kalte-ordainak ordaindu beharko dizkiete sortutako kalteek edo zauriek eragindako pertsonei.

2. Erantzukizun hori erabiltzeko utzi diren instalazioen kalteengatik sortu bada, Udalak baliatuko du kalte-ordaina erreklamatzeko eskubidea, administrazio-zuzenbideko arau aplikagarriak aintzat hartuta.

3. Kalteak edo zauriak partikularrei eragiten bazaizkie, hau da, gainerako erabiltzaileei edo baratzerik ez duten pertsonei, horiek eskatuko dute erantzukizuna, legedia zibilean ezarritakoarekin bat etorriz.

El canon será de 10 € mensuales por huerta y estarán exentos de su pago los grupos de interés a los que se refiere el art. 3h).

b) Fianza. Se debe depositar una fianza en garantía de la correcta utilización del dominio público municipal de 100 € en garantía de la correcta utilización de la parcela de la huerta.

También los grupos de interés a los que se refiere el art. 3h) estarán exentos de su presentación.

Con carácter general, se devengan el canon del primer año y la fianza en el mismo momento de otorgamiento de la licencia municipal autorizadora del uso del huerto. En años posteriores, deberá abonarse el canon antes de finalizar el primer año de autorización.

4. Se emitirán las facturas correspondientes de consumo de agua. Cada adjudicatario pagará, a través de la Comunidad de Usuarios, la factura en proporción a su consumo.

CAPÍTULO IV

RÉGIMEN DE RESPONSABILIDAD

*23. Régimen de responsabilidad.*

1. Las personas usuarias serán responsables de los posibles perjuicios que puedan causarse a sí mismas o a terceras personas en el ejercicio de sus facultades de uso y disfrute. En ningún caso será responsable el Ayuntamiento de los daños o perjuicios que puedan causarse entre sí o a terceras personas.

La presentación de solicitud a la correspondiente convocatoria, a fin de obtener una autorización de uso, conlleva la aceptación por las personas solicitantes de los posibles riesgos derivados de la actividad, sin que deba responder el Ayuntamiento por daños materiales o personales a causa de caídas, accidentes, golpes o situaciones similares que padezcan las personas autorizadas o sus acompañantes.

2. Quien sea titular de la autorización, ejercerá el uso sobre la correspondiente parcela a su propio riesgo y ventura. El Ayuntamiento no se hará responsable de los daños que puedan sufrir las huertas debido a fenómenos meteorológicos adversos tales como granizadas o inundaciones.

3. El Ayuntamiento no asumirá responsabilidades por daños, sustracciones o actos vandálicos que puedan afectar a los huertos. Tampoco asumirá responsabilidad de custodia.

4. El Ayuntamiento podrá iniciar de oficio el procedimiento conducente a determinar las posibles responsabilidades por culpa o negligencia grave de las personas adjudicatarias de los huertos.

*24. Indemnización por daños y perjuicios.*

1. Las personas usuarias que resulten responsables, según lo establecido en el artículo anterior, quedarán obligadas a indemnizar a la persona o personas perjudicadas por los daños o lesiones producidos.

2. En el caso de que la responsabilidad se originase por daños a las instalaciones que se ceden para su uso, el derecho a reclamar la correspondiente indemnización se ejercerá por parte del Ayuntamiento, en base a las normas de derecho administrativo que resulten aplicables.

3. Si los daños o lesiones se produjeran a particulares, esto es, demás personas usuarias o terceras personas ajenas a los huertos, la responsabilidad se exigirá por parte de estas, en base a lo establecido en la legislación civil.

EK\CV GAO-I-2017-02817

V. KAPITULUA

DIZIPLINAZKO ERREGIMENA

*25. Arau orokorrak.*

1. Baratzeen erabiltzaileek derrigor bete beharko dute Araudi honetan ezarritako guztia, eta, bertan, aurreikusten ez diren kasuetan, Tokiko Erakundeen ondasunei buruzko araudian xedatutakoa.

2. Araudi honetan ezarritakoaren aurkako jokaeraren bat, arau-hauste gisa tipifikatuta balego, Udalak zigortu egingo du.

3. Erabiltzaileek, dolu, erru, axolagabekeria edo ezjabetzeagatik, baratzeak kokatuta dauden lursailetan edo instalazioetan kalteren bat eraginez gero, edo baratzeen xede nagusiari edo horien araudiari kontra egiten badiote, horiek administrazioaren bitartez zigortuko dira, isun bidez, Araudi honetan jasotako terminoetan.

4. Zigorren kopuruari dagozkion graduazioak eta zehaztapenak honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan:

a) Eragindako kaltearen kopurua.

b) Arau-hausleak bereganatutako etekina.

c) Nahitasuna edo nahitasunik eza.

d) Urtebeteko epean, izaera bereko arau-hauste bat edo gehiago egitea, horiek ebazpen irmo bidez adierazi direnean.

5. Erabiltzaileen erantzukizuna nagusia edo zuzenekoa izan daiteke, arau-haustearen egileak beraiek badira, edo zeharkakoa, ekintzen egilea instalazioetatik kanpoko norbait denean eta ekintza horiek erabiltzailearen arduragabekeriagatik gertatu direnean, sartzea debekatuta zuten hirugarrenei sartzen uztegatik.

*26. Ikuskapena eta kontrola.*

1. Udalak izendatutako teknikariek egingo dituzte ikuskapen- eta kontrol-lanak; horiek Araudi honetan arautzen diren gaien inguruko zaintza-, ikuskapen- eta kontrol-jarduerak gauzatu ahal izango dituzte.

2. Teknikariez gain, udaltzainek ere egin ahal izango dituzte ikuskatze-lanak, eta baratzeetara joan ahal izango dira horien kudeaketan eztabaidak eta liskarrak sortzen badira, erabiltzaileen artean nahiz beste pertsona batzuekin.

3. Baratzeen erabiltzaileek bertara sartzen utzi beharko diete pertsona horiei, eta horiek eskatzen dizkieten argibideak eman beharko dituzte, baratzeen kudeaketari, erabilerari eta ustiapenari dagokion jarraipena egin ahal izateko.

*27. Arau-hausteak.*

1. Jarrera arau-hausletzat joko da baratzeetako erabiltzaileek nahiz kanpoko pertsonaren batek egindako egintza oro, hark Araudi honetan edo aplika daitekeen beste edozein arauditan (Araudi honetan araudi hori ezinbestean bete behar dela jasotzen bada) esandakoa urratzen badu.

2. Arau-hausteak arin, larri eta oso larri gisa kalifikatuko dira, jarrera arau-hauslearen edo instalazioei eragindako kalteen intentsitatea edo erruduntasuna kontuan hartuta.

3. Aurrekoari kalterik egin gabe, honako jarrera hauek arau-hauste arintzat joko dira:

a) Baratzerako bereziki egokiak diren barazki-espeziak ez landatzea edo lantzea, Araudi honetan xedatutako terminoetan.

CAPÍTULO V

RÉGIMEN DISCIPLINARO

*25. Reglas generales.*

1. Los usuarios de los huertos vendrán obligados al cumplimiento de todo lo establecido en la presente Normativa y en lo no previsto en la misma, a lo dispuesto por la normativa sobre bienes de las Entidades Locales.

2. Cualquier conducta contraria a los preceptos de la Normativa que se encuentre tipificada como infracción, será sancionada por el Ayuntamiento.

3. Los usuarios que por dolo, culpa, negligencia o aún a título de simple inobservancia, causen daños en las instalaciones o parcelas en las que se ubican los huertos, o contraríen el destino propio de los mismos y las normas que los regulan, serán sancionados por vía administrativa con multa, en los términos establecidos en la presente Normativa.

4. La graduación y determinación de la cuantía de las sanciones, atenderá a los siguientes criterios:

a) La cuantía del daño causado.

b) El beneficio que haya obtenido el infractor.

c) La existencia o no de intencionalidad.

d) La reincidencia por comisión en el plazo de un año de una o más infracciones de la misma naturaleza, cuando hayan sido declaradas por resoluciones firmes.

5. La responsabilidad de los usuarios podrá ser principal o directa, en el supuesto de que sean los mismos los autores de la conducta infractora, o bien subsidiaria, cuando el autor de los hechos sea persona ajena a las instalaciones que hubiera cometido los mismos con la benevolencia del usuario o por negligencia de éste, al permitir la entrada a personas terceras que lo tuvieran prohibido.

*26. Inspección y control.*

1. La inspección y control se efectuará por el personal técnico designado por el Ayuntamiento que, podrá realizar actuaciones de vigilancia, inspección y control en relación con las materias reguladas en la presente Normativa.

2. Además del personal técnico, la Policía Local podrá igualmente realizar funciones de inspección y personarse en los huertos, en caso de controversias o incidencias en la gestión de los mismos y entre las personas usuarias, o con terceras personas.

3. Las personas usuarias de los huertos, estarán obligadas a facilitar a las personas citadas el acceso a los mismos, así como el suministro de información que se les requiera, en orden al seguimiento de la gestión, uso y disfrute que se lleve a cabo.

*27. Infracciones.*

1. Se considerará conducta infractora, todo aquél acto llevado a cabo tanto por los usuarios de los huertos, como por persona ajena a los mismos, que contravenga lo dispuesto en la presente Normativa o en cualquier otra normativa que resultara de aplicación, si esta última está recogida como de obligado cumplimiento en la presente Normativa.

2. Las infracciones se calificarán en leves, graves o muy graves, en atención al grado de intensidad o culpabilidad en la conducta infractora, o al daño causado a las instalaciones.

3. En concreto, y sin perjuicio de lo anterior, se considerarán infracciones leves las siguientes conductas:

a) No destinar los huertos al cultivo y plantación de aquellas especies vegetales propiamente hortícolas en los términos expresamente dispuestos en esta Normativa.

EK\CV GAO-I-2017-02817

b) Kanpokoak diren pertsonei instalazioetara sartzen uztea, horiek familiako kideak, erabiltzaileari tarteka laguntzen dieten pertsonak, ikasleak edo baimendutako langileak direnean salbu.

c) Baratzeetan animaliak izatea.

d) Baratzeetan trakzio mekanikoko makineria edo ibilgailuak izatea.

e) Udalak bere teknikarien bitartez emandako baratzeen erabilerari buruzko argibideak ez betetzea.

f) Baratzeen erabiltzaileek izandako beste edozein jarrera, hura Udalak baratzeen erabiltzaileei Araudi honetan ezarritako betebehar eta zereginen aurkakoa bada,eta arau-hauste larri edo oso larritzat jotzen ez bada.

g) Udalak antolatutako prestakuntza-ikastaroetara ez joatea, behar bezala justifikatutako arrazoirik gabe.

4. Honako jarrera hauek arau-hauste larritzat joko dira:

a) Erabiltzeko utzi diren baratzeen mantentze-lanak ez betetzea, baratzeak kaltetu edo hondatu egin direnean.

b) Lursailean Udalak aldez aurretik baimendu ez dituen obrak edo aldaketak egitea.

c) Beste erabiltzaileek jasan beharko ez lituzketen eragozpenak sortzea.

d) Udalak baimendu gabe hirugarrenei baratzearen erabilera lagatzea.

e) Lurraren, zoruaren edo zorupearen narriadura eragin dezaketen espezieak edo landareak lantzea.

f) Baratzeetan baimentzen ez diren barbakoak, biltegiak edo bestelako elementuak instalatzea.

g) Belardiak edo baratzeetako laborantza-hondarrak erretzea, edo baratzeen barruan edozein su-mota piztea.

h) Urtebeteko epean bi hutsegite arin edo gehiago egitea.

5. Honako jarrera hauek arau-hauste oso larritzat joko dira:

a) Gainerako baratzezainei lesioak eragitea, edozein erabiltzailek edo harekin izandako beste pertsonaren batek egindako ekintzak direla eta.

b) Lurzorua kutsatzea.

c) Beste baratzezainen erabilera edo aprobetxamenduaren garapen arrunta saihestea.

d) Baratzeen funtzionamendu arrunta saihestea edo eragoztea.

e) Utzi diren instalazioak eta/edo lursaila bera larriki hondatzea.

f) Landatzea, ereitea, biltzea edo izatea debekatuta dauden landare exotikoak edo psikotropikoak ekoiztea.

g) Baratzeen ustiapenetik lortutako produktuak merkaturatzea.

h) Urtebeteko epean bi hutsegite larri edo gehiago egitea.

6. Lizentziaren titularrak hutsegite arin, larri edo oso larriren bat egiten badu, lizentzia baliogabetuko zaio eta ezarritako zigorra ordaindu beharko du, hurrengo artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Baliogabetze horrek ez dio erabiltzaileari kalte-ordainak jasotzeko aukerarik emango. Arestian esandakoari kalterik egin gabe, erabiltzaileren baten jarrerak delitu-izaera badu, gertaka-

b) Permitir el paso a las instalaciones de personas ajenas a las mismas, salvo que sean familiares, personas que acompañen ocasionalmente al usuario, escolares o personal autorizado.

c) La tenencia de animales en los huertos.

d) La presencia de vehículos o maquinaria de tracción mecánica en los huertos.

e) No acatar las instrucciones que el Ayuntamiento a través de su personal técnico diere a los hortelanos, en relación con el uso de los huertos.

f) Cualquier otra conducta realizada por los usuarios de los huertos, contraria a las obligaciones y deberes impuestas por el Ayuntamiento a los usuarios de los huertos en la presente Normativa y que no tuviera la calificación de infracción grave o muy grave.

g) No asistir a los cursos de formación que organice el Ayuntamiento sin causa justificada.

4. Tendrán la consideración de infracción grave, la comisión de las siguientes conductas:

a) Incumplimiento en el mantenimiento de los huertos que se ceden para el uso, cuando se hubieren originado perjuicios o deterioros en aquéllos.

b) La realización de obras o modificaciones en la parcela, que no estuviesen previamente autorizadas por el Ayuntamiento.

c) Causar molestias a los demás hortelanos que no tuvieran el deber de soportar.

d) La cesión del uso del huerto a terceras personas que no hubieran sido autorizadas para ello por el Ayuntamiento.

e) Cultivar especies vegetales o plantas que provoquen un deterioro de la tierra, del suelo o del subsuelo.

f) La instalación de barbacoas, cobertizos o demás elementos no permitidos en los huertos.

g) La quema de pastos o restos del cultivo de huertos, así como la generación de cualquier tipo de fuego dentro del recinto de los huertos.

h) La acumulación de dos o más faltas leves en el periodo de un año.

5. Tendrán la consideración de infracción muy grave, la comisión de las siguientes conductas:

a) Las lesiones que se causen a los demás hortelanos, por actos propios cometidos por cualquier usuario o terceras personas que lo acompañaren.

b) Provocar una contaminación del suelo.

c) Impedir el normal desarrollo del aprovechamiento y uso de los huertos por los demás hortelanos.

d) Impedir u obstruir el normal funcionamiento de los huertos.

e) Causar un deterioro grave y relevante a las instalaciones que se ceden y/o a la parcela en su conjunto.

f) Producción de plantas exóticas o psicotrópicas u otras cuya siembra, cultivo, recolección o tenencia estuviesen prohibidos.

g) Comercializar los productos obtenidos del cultivo de los huertos.

h) La acumulación de dos o más faltas graves dentro del término de un año.

6. La comisión de alguna infracción, leve, grave o muy grave, por parte del titular de la licencia, dará lugar a la revocación de la misma, sin perjuicio de la sanción que asimismo se imponga, conforme a lo dispuesto en el Artículo siguiente.

Dicha revocación, no dará lugar a abonar indemnización alguna al usuario. Sin perjuicio de lo dispuesto anteriormente, cuando la conducta llevada a cabo por algún usuario, revistiera


EK\CV GAO-I-2017-02817

riak eskumena duten agintari judizialei jakinaraziko zaizkie, eragin daitezkeen izaera penaleko erantzukizunak denak direla. Edonola ere, Udalak kaltetu dezaketen ekintza penal, zibil eta administratibo guztiak salatuko ditu.

*28. Zehatzeko eskumena duten agintariak.*

a) Kasuan kasuko zigorrak jartzeko eskumena alkateari/presidenteari dagokio.

b) Edonola ere, alkateak tokiko beste organo bati eskuordetu ahal izango dio gaitasun zigortzailea, tokiko jardunbideen legeari jarraiki.

carácter de delito, se pondrán los hechos en conocimiento de la autoridad judicial competente, a fin de las posibles responsabilidades de tipo penal que se pudieran derivar. No obstante ello, el Ayuntamiento instará las acciones penales, civiles o administrativas, que como parte perjudicada le correspondieran.

*28. Autoridad competente para sancionar.*

a) La competencia para la imposición de las sanciones correspondientes, se atribuye al Alcalde/Presidente.

b) No obstante lo anterior, el Alcalde podrá delegar en cualquier otro órgano local, la facultad sancionadora, con arreglo a la ley de bases de régimen local.